


# BAI MUNDU BERRIA

## Aldous Huxley

Itzultzailea: Xabier Amuriza

**2018**
**ABENDUA**

**ELEBERRIA**

ISBN: **978-84-17065-58-4**
ORRIALDEAK: **312**
FORMATOA: **12 x 19**
PREZIOA: **20,50 €**

Izan ote liteke gizarte perfektorik? 1932an imajinatu zuen Huxleyk mundu berri hau, utopia moderno bat, non gosea, beharra eta zoritxarra betirako desagertzen diren. Dena dago ezin hobeki antolaturik, prestaturik, bakoitzak bere lekua hartzen du gizartean eta pozik bizi da. Hala ere, mundu bikain horretan gizakia ez da benetako gizaki: zoriona derrigorrezkoa baldin bada non da aukera, predestinazioak non uzten du askatasuna, grinarik gabe posible ote da artea? Gizarte futurista horrek, guztiz urrun eta irudimenezkoa izanik ere, askotan geurearen hainbat alderdi dakarzkigu gogora, Huxleyk sekulako zorroztasuna izan zuelako bai zientziaren bai politikaren norabideei antzemateko. Oso eleberri gutxi idatzi dira Bai mundu berria bezain lazgarriak, izugarriak, erabat asmatua izan arren halako egiaren irudipena sortu eta irakurleari zer pentsatua ematen diotenak.

> **“XX. mendea gizakiaren bi bertsio arras ezberdinen arteko talka bezala ulertu daiteke: Orwellen *1984*ko totalitarismo zapaltzailea, eta *Bai mundu berria*ren paradisu hedonista itxurazkoa, non guztia kontsumitu daitekeen eta gizakiak zoriontsu izateko diseinatuta dauden”.**
>
> **Margaret Atwood**



**ALDOUS LEONARD HUXLEY**
(Ingalaterra, 1894 - California, EEBB, 1964), ingeles eleberrigile, kritiko eta pentsalaria, XX. mendearen hasieran publikatu zituen bere lehen eleberriak, garaiko gizartea eta literatura satirikoki eta ironikoki zuritzeko baliatu zituenak. Ospea, ordea, jada Californian zela argitara eman zuen Bai mundu berria nobelak eman zion, 1932an. Ordutik, distopiaren eredutzat hartuko den lana izanik, hamarnaka hizkuntzatara itzuli da. Etorkizunarekiko kezka, zeintziaren eta teknologiaren erabilpena, psikologiaren hainbat alderdi, drogen erabilera, politika, filosofia, morala... dira bere hamaika fikzio-lanetan jorratu dituen gai nagusiak.

*Brave New World* Aldous Huxley idazle handiaren lehen nobela distopikoa da. XXVI. Mendeko Londresen kokatuta, deskribatzen duen munduan gizakiak ez du kezkarik: teknologikoki garatutako gizartea da, hedonista, kontsumitzailea, drogen eta sexu-plazerekin itsututa; gerra eta pobreziarik gabe, denak dira zoriontsu. Hori guztia lortze aldera, hala ere, giza balio esentzialenei uko egin behar izan diete. Hala, aniztasun kulturala, artea, literatura, zientzia, erlijioa edota filosofia desagertu dira. 1932an idatzi zuen Huxleyk *Bai mundu berria* eta 1971an euskaratu zuen Xabier Amurizak izenburupean. Elkar argitaletxearen eta Amurizaren beraren eskuzabaltasunari esker, Fernando Reyren esku trebeak orraztutako bertsio horren moldaketa eta gaurkotzea aurkezten dizuegu berriz ere ia mende erdia eta gero. Orwellen *1984* eta Bradburyren *Fahrenheit 451* lanek faltan zuten hirugarren erpin distopikoa gurean da jada.

**Txalapartan ere euskaraz argitaratutakoak:**




**Fahrenheit 451**
Ray Bradbury




**1984**
George Orwell

txalaparta
www.txalaparta.eus
9 788417 065584